


— Jolastu eta ikasi —  
Elkanorekin

# Jokoaren gida





# *Zer da* **“Jolastu eta ikasi Elkanorekin”?**

“Jolastu eta ikasi Elkanorekin” abentura interaktibo bat da, 8 kapitulu edo mugarritan Magallaes-Elkano espedizioaren balentria kontatzen duena. Istorioa honako kapitulu hauetan dago egituratuta:

**1**

## *Sevillatik abiatzea*

Espedizioaren testuinguru historikoa, prestaketa eta itsasoratzea.

**2**

## *Rio de Janeirorantz*

Bost ontziek zeharkaldia Atlantikoan, Hego Amerikara bidean.

**3**

## *Puerto de San Juliáneko matxinada*

Magallaesen aurkako altxamendua, hura itzultzera behartzekoa, eta hori nola gainditu zuen.

**4**

## *Magallaes itsasartea*

Ozeano Barerako pasabidearen bilaketa, Suaren Lurraldean barrena.

**5**

## *Mariana uharteak*

Guam uhartean atsedean hartzea eta beharrezko guztiaz hornitzea, lehorra zapaldu gabe hiru hilabete eman ostean.

**6**

## *Filipinak*

Magallaesen heriotza Maktango batailan.

**7**

## *Moluka uharteak*

Bidaiaren helmugara, espezien irletara, heltzea.

**8**

## *Espainiara itzulera*

Itxaropen Onaren lurmuturretik eta Cabo Verdetik igarotzea, Sevillara itzultzea eta bidaiaren balantzea.



# *Zertan datza*

## *“Jolastu eta ikasi Elkanorekin”?*

“Jolastu eta Ikasi Elkanorekin” hezkuntza esperientziaren leitmotiva da ikasleak mapamundi batean egindako ibilbidea, hasieran Magallaesen eta, hura hil ondoren, Elkanoren, agindupean zeuden ontziek egindako bide berari jarraikiz. Zortzi geldialdi egingo ditu, bidaiaren mugarri garrantzitsuenetan, informazioa biltzeko, eta, horretan oinarrituta, jarduera interaktibo batzuk gainditu beharko ditu, bidaiaren hurrengo etapara heldu ahal izateko.

Hezkuntza ibilbidearen eskema honako hau da.

### *1. Sarrera*

“Jolastu eta ikasi Elkanorekin” hezkuntza jokoaren URLra sartu.

### *2. Ongietorri bideoa*

Ongietorri bideo bat agertuko da; bertan, hezkuntza jokoaren helburuak, bidaiaren etapak eta jokatzeko ikasleentzako jarraibideak azalduko ditu Juan Sebastian Elkanok, “Elkano lehen mundu bira” filmeko pertsonaia bizidunak. Berak lagunduko dio ikasleari ibilbide osoan.



### **3. Ibilbidearen mapa**

Ongietorri bideoa ikusi ondoren, mapa azalduko da, eta bertan mugituko da ikaslea, Elkanoren bidaiaren 8 etapak egiteko.

Hezkuntza jardueraren funtzionamendua:

- Mugarri edo etapa bakoitzera kronologikoki sartuko da, bidaia osoa amaitu arte. Behin amaitutakoan, ikasleak nahi bestetan ikusi ahalko du berriz, nahi duen ordenenan.
- Mapan ezarritako etapa bakoitzean bideo bat agertuko da, Elkanoren pertsonaiak gidatua, eta bertan azalduko ditu etapa horretako gertakari nagusiak. PDFn ere deskargatu ahalko da kapituluko edukia, kontsulta material gisa.
- Bideoa ikusi ostean, autoebaluazio jarduera bat agertuko da. Hiru saiakera egin ahalko dira gainditzeko, eta gainditu eta gero, ibilbidean aurrera jarraitu ahalko da, hurrengo etapara arte.
- Ikasleak 3 saiakerak agortzen baditu, mezu bat agertuko zaio, materiala aurrerako erreparatzeko dioena. Hala ere, bidaian jarraitzeko aukera egongo da, hurrengo etapak ezagutzeko.
- Etapa horiek mapan osatuta agertuko dira, ikaslea mapan ibilbidea markatuz joan ahala.
- Azken etaparekin bukatzen da hezkuntza esperientzia.

### **4. Deskargatzeko materialak**

Ikasleek eta irakasleek kontsulta materiala deskargatu ahalko dute, edukia indartzeko edo zabaltzeko. Honako hau da:

#### ***NOR DA NOR? fitxak***

Dokumentu honetan, istorioko protagonis-  
tei eta balentrian izan zuten rolari  
buruzko informazio fitxak daude.

#### ***Ikastaroko edukiak PDFn***

Ikastaroan ikusitako edukia PDF forma-  
tuan jasoko da, bai ikastaro osoa bai etapa  
bakoitzeko kapituluak banaka.